

## 2021eko UPV/EHUko MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEKO DEKANOA HAUTATZEKO ESKULIBURUAREN 1. FASEA

### Sarrera

**Prozesu honetarako hauteskunde araudia**  
**Zein da dekanoa eta nola aukeratzen da?**  
**Hautagaitza bat aurkezteko betebeharrak**  
**Hautagaitza formalizatzea**  
**Nola aurkezten da aurkaratze bat?**  
**Zer da Fakultateko Hauteskunde Batzordea?**

### Sarrera

Fakultateko Batzarrak **2021eko martxoaren 4an** egindako saioan erabaki zuen dekanoa aukeratzeko hauteskundearen deialdia egitea argitaratutako egutegiaren arabera.

### Prozesu honetarako hauteskunde araudia

UPV/EHUren araudi honi jarraitu behar zaio:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Hauteskunde Erregimen Orokorreko Arautegiak ezartzen duen hauteskunde araudia:

<https://www.euskadi.eus/y22bopv/es/bopv2/datos/2011/05/1102687a.shtml>

Ikastegiaren oinarritzko arautegia:

[https://www.ehu.eus/documents/1734204/1840140/Reglamento\\_Marco\\_Centros\\_%28Cas%29.pdf](https://www.ehu.eus/documents/1734204/1840140/Reglamento_Marco_Centros_%28Cas%29.pdf)

Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen arautegia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/10/1604326a.shtml>

### Zein da dekanoa eta nola aukeratzen da?

Dekanoa (MEFko arautegiaren 14.1 art.) Fakultateko kide bakarreko gobernu, ordezkaritza eta administrazio organo gorena da eta ikastegiari atxikitako **irakasle-ikertzaile iraunkor doktoreen** artetik hautatzen da. Halako irakasle-ikertzaile ez balego, irakasle-ikertzaile iraunkorren artetik aukeratu litzateke. Eta errektoreak izendatzen du.

Dekanoa sufragio unibertsal bidez aukeratuko da edo **Ikastegiko Batzarrak aukeratuta**. Ikastegiaren arautegian besterik zehaztu ezean, Ikastegiko Batzarrak hautatuko du (Oinarrizko arautegiaren 24.3 art.). **Botoa ezin izango da eskuordetu**. Agintaldia lau urtekoa izango da eta gehienez ere bi agintaldi egin ahal izango dira segidan.

## Hautagaitza bat aurkezteko betebeharrak

Hauteskundearen deialdia argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita 15 eguneko epean, hau da, **2021eko apirilaren 13tik 17ra**, fakultateari atxikitako nornahi aurkeztu ahal izango da, baldin eta **irakasle-ikertzaile iraunkor doktoreen** estamentukoa bada.

## Hautagaitza formalizatzea

Hautagaitza formalki aurkeztuko zaio Hauteskunde Batzordearen buruari idatziz eta hautagaiak sinatuta, eta Erregistro Orokorreko edozein bulegotan erregistratuko da. **Fakultateko Batzarreko kideen % 10ak bermatu beharko du.**

Hautagaitzarekin batera, hautagaiaren **gobernu taldearen egitura eta programa** aurkeztuko da. Gobernu taldea idazkari akademikoak, dekanordetzek, Ikastegiko Administrazio eta Zerbitzuetako arduradun gorenak eta Erizaintza Ataleko koordinatzaileak osatuko dute.

Hautagaitza bakoitzak, ahal bada, **posta elektronikoko helbide bat** edo berehala harremanetan jartzeko beste bitarteko bat adieraziko du; bitarteko hori erabili daiteke hauteskunde prozesu osoan noranzko bakarrean Hauteskunde Batzordeak dokumentazioa eskatzeko eta informazioa bidaltzeko, baita aurkeztutako hautagaitzei errekerimenduak egiteko ere, Hauteskunde Batzordeak hartutako erabakiak ahalik eta azkarren irits diezazkien hautagai interesdunei. Horri esker, prozedurari azkartasun eta eraginkortasun handiagoa emango zaio.

## Nola aurkezten da aurkaratze bat?

Hautagaitzen aurkaratzeak idatziz aurkeztu behar dira Erregistro Orokorreko edozein bulegotan edo posta elektronikoko bat bidalita **isabel.lopezabadia@ehu.eus** helbidera **2021eko maiatzaren 3ko** 10:00ak baino lehen. Mezuan izen-abizenak, NANA, zer sektoretakoa den (ikasleak, AZP, irakasle eta ikertzaile iraunkorrak, beste irakasle eta ikertzaile batzuk edo beste batzuk) eta aurkaratzearen arrazoiak azaldu beharko dira. Ikastegiko Hauteskunde Batzordeak aurkez daitezkeen aurkaratzeak ebatziko eta akatsak eta omisioak zuzenduko ditu. Horretarako, txosten bat egingo du bere erabaki proposamenarekin, eta hautagaitzak **2021eko maiatzaren 4an** izendatuko ditu behin betiko.

## Zer da Fakultateko Hauteskunde Batzordea?

Fakultateko Hauteskunde Batzordeak hauteskunde prozesua sustatuko du Batzarrak adostutako egutegiaren arabera, eta hauteskunde prozesua modu gardenean eta araudiarekin bat etorrita egingo dela zainduko du.

Dekanoak edo hark eskuordetutako pertsonak osatuko du eta haren buru izango da; idazkari lanetan Ikastegiko idazkari akademikoa arituko da eta demarkazio horretako hauteskunde talde bakoitzeko ordezkari batek osatuko du. Batzorde hori zozketaz izendatuko da Fakultateko Batzarreko kideen artean, eta lau urtean behin berrituko da, ikasleen ordezkariak izan ezik, bi urtean behin berrituko baita.

Bileren egutegia hauteskunde egutegira egokituko da; orientazio modura, daten eta aztergaien zerrendaren eredia erantsi da.

IKASTEGIKO HAUTESKUNDE BATZORDEAREN BILERAK. DEKANOA AUKERATZEKO 2021eko HAUTESKUNDEAK	
<p><b>1. bilera</b> <b>Apirilak 28</b> (asteazkena)</p> <p>Aztergaien zerrenda:</p>	<p><b>Lehenengoa.</b>- Ikastegiko Hauteskunde Batzordea eratzea. <b>Bigarrena.</b>- Hauteskunde Batzordearen bileren egutegia onartzea. <b>Hirugarrena.</b>- Hautagaitzak behin-behineko izendatzea eta Ikastegiko, Ataleko eta irakasguneetako iragarki tauletan eta Fakultatearen webgunean argitaratzeko agindua ematea. <b>Laugarrena.</b>- Galde-eskeak.</p>
<p><b>2. bilera</b> <b>Maiatzak 4</b> (asteartea)</p> <p>Aztergaien zerrenda:</p>	<p><b>Lehenengoa.</b>- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea. <b>Bigarrena.</b>- Hautagaitzen behin betiko izendatzea eta Ikastegiko, Ataleko eta irakasguneetako iragarki tauletan eta Fakultatearen webgunean argitaratzeko agindua ematea. <b>Hirugarrena.</b>- Hautagaitzei aurkeztutako aurkaratzeei buruzko txostena. <b>Laugarrena.</b>- Bozketarako erabiliko diren gutun azalak eta boto paperak zehaztea. <b>Bosgarrena.</b>- Propaganda jardueren garapenari eta egutegiari buruzko erabakia (dekanoa aukeratzeko hauteskundeetako kanpaina). <b>Seigarrena.</b>- Hauteskunde eguneko inguruabarrei buruzko erabakia hartzea: bozketa lokalak eta eskola ordutegia murriztea botoa emateko eskubidea baliatzeko, besteak beste. <b>Zazpigarrena.</b>- Galde-eskeak.</p>
<p><b>3. bilera</b> <b>Maiatzak 13</b> (osteguna)</p> <p>Aztergaien zerrenda:</p>	<p><b>Lehenengoa.</b>- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea. <b>Bigarrena.</b>- Dekanoa aukeratzeko hauteskundearen behin-behineko emaitzak jakinaraztea, eta emaitza horiek Ikastegiko, Ataleko eta irakasguneetako iragarki taulan eta Fakultateko webgunean argitaratzeko agindua ematea. <b>Hirugarrena.</b>- Galde-eskeak.</p>
<p><b>4. bilera</b> <b>Maiatzak 19</b> (asteazkena)</p> <p>Aztergaien zerrenda:</p>	<p><b>Lehenengoa.</b>- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea. <b>Bigarrena.</b>- Dekanoa aukeratzeko emaitzen behin-behineko izendapenari aurkeztutako aurkaratzeak ebaztea. <b>Hirugarrena.</b>- Dekanoa aukeratzeko hauteskundearen behin betiko emaitzak jakinaraztea, eta emaitza horiek Ikastegiko, Ataleko eta irakasguneetako iragarki taulan eta Fakultateko webgunean argitaratzeko agindua ematea. <b>Laugarrena.</b>- Galde-eskeak.</p>

## 2021eko UPV/EHUko MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEKO DEKANOA HAUTATZEKO ESKULIBURUAREN 2. FASEA

### Hauteskunde kanpaina Antolaketa lanak

#### BOZKETA

#### ZENBAKETAa) Boto zenbaketa

#### b) Zenbaketa akta egitea

#### c) Emaitzak argitaratzea

### Hauteskunde kanpaina

Hauteskunde Batzordeak hautagaitzekin bilera baterako deialdia egingo du, eta propaganda jardueren egutegia (hauteskunde kanpaina) antolatuko du haiekin. Hauteskunde propagandako ekitaldiak hautagaitzak behin betiko izendatzen direnetik (maiatzaren 4a) egin ahalko dira, bozketa baino 24 ordu lehenago arte. Garrantzitsua da honako hau argi geratzea: maiatzaren 11n ezin dira hauteskunde propagandako ekitaldiak egin.

Hautagaitza bakoitzak bere programa azaltzeko eskola ordu bat izango du ikastegi bakoitzeko. Halaber, ordu horretan irakaskuntza jarduera eten egingo da, eta xede horretarako lokal egoki bat eskuragarri jarriko da. Denbora hori antolatzea Hauteskunde Batzordearen eskumena da, eta aukera izango du denbora hori zatitu dadin adosteko. Horrela, ez dio eragingo irakasgai jakin batzuen irakaskuntzari soilik.

### Antolaketa lanak

Hauteskunde Batzordearen bileran botoa emateko txartel ofizialen eta gutun azalen eredia adostu beharko da. Komenigarria litzateke hautagai zerrenda bakoitzerako boto txartel bat izatea, botoak errazago zenbatzen direlako, baina, dena dela, guztiak formatu eta kolore berekoak izan behar dira. Boto txarteletan hautagaiaren izena agertu behar da soilik. Boto txartel zuriak ere egongo dira.

## BOZKETA

### a) Hauteskunde mahaia eratzea

**Maiatzaren 12an, Fakultateko Batzarraren deialdia egiten den orduan**, hauteskunde mahaia eratuko da. **Ikastegiko Hauteskunde Batzordea hauteskunde mahai gisa arituko da** bozketa egunean. Dena den, beharrezko presentzia eskatuko da kide anitzeko organoa balio osoz eratzeko (% 50 lehenengo deialdian edo heren bat bigarrean).

Bozketa sekretua izango da eta ezingo da botoa eskuordetu. Hautetsontzi bakarria erabiliko da estamentu guztietarako.

Mahaikide batek errolda markatuko du, eta beste batek boto emaile bakoitzaren izena idatziko du zerrenda zenbakidun batean. Horrela, botoak kontatzean zalantzarik sortuko balitz botoa eman dutenen azken kopuruaz, egiaztapenak egiteko baliabide egokiak egongo lirateke.

Mahaiak behin egiaztatuta boto emailearen nortasuna eta behin ziurtatuta erroldan dagoela, boto emaileak boto txartela emango dio (horretarako ezarritako gutun azalean sartuta), mahaiburuari edo dagokion mahaikideari, eta hark boto kutxan sartuko du unean bertan.

Boto txartela daukan gutun azala mahaiko buruak edo mahaikide batek baino ezin izango du sartu boto kutxan.

## ZENBAKETA

Bozketa amaituta, botoak zenbatuko dira jendaurrean. Behin boto guztiak zenbatuta, mahaia aurkeztutako erreklamazioak ebatziko ditu.

**BOTOAK MAHAIKO KIDEEK BAINO EZ DITUZTE ZENBATUKO; BERAZ, EZIN IZANGO DITU BESTE INORK MANIPULATU EZ BOTO TXARTELAK EZ BOTO KUTXA.**

### a) Boto zenbaketa

Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 8. artikulua honako hau dio:

**Boto baliogabeak** izango dira:

- a) Boto txartel ez ofizialetan emandako botoak edo oharren bat duten txarteletan, edo izenen bat ezabatuta edo aldatuta dutenak.
- b) Hautagai zerrenda bat baino gehiago adierazita dutenak (zerrenda bat baino gehiago daukaten txartelak direnean); gutun azalean hautagai desberdinen txartelak edo aukera desberdineko txartelak (hautagai bat eta boto zuria) sartuta dituztenak.

c) Gutun azal ez ofizialetan emandako botoak edo gorabeheraren bat dutenak edo txartel ez ofizialak dituzten gutun azaletakoak.

**Boto zuriak** izango dira:

- a) Txartel ofiziala zuriz daukatenak.
- b) Hautagai zerrendarik aukeratuta ez dutenak (zerrenda bat baino gehiago daukaten txartelak direnean).
- c) Boto txartelik ez daukaten gutun azalak.

Horrexegatik, kontu handia izan behar da eta botoak zenbatzean ondo banatu behar dira, alde batetik, botoak zenbatzeko hustutako gutun azalak, eta, bestetik, boto txartelik gabe (hutsik) sartu diren gutun azalak, boto zuri direnak.

**Mahaiak berehala jakinaraziko du emaitza, zenbaketa ozen egin ostean.**

**Hainbat hautagaitza** badaude, lehenengo itzulian hautatua izango da balio osoz emandako botoen gehiengo osoa duena. Ez bada gehiengo osoa lortzen, bigarren bozketa bat egingo da boto gehien jaso dituzten hautagaitzen artean eta boto gehien jasotzen dituenak irabaziko du. Berdinketa egotekotan, beste bozketa bat egingo da, eta, berdinketak jarraituko balu, kategoria eta antzinatasun handieneko kategoriak irabaziko luke.

**Hautagaitza bakarra** badago, itzuli bakarra egingo da, baiezko botoen eta boto zurien bidez. Dekanoa izendatuko da, baldin eta balio osoz emandako aldeko botoen herena baino gehiago lortzen badu.

#### **b) Zenbaketa akta egitea**

Zenbaketa bukatu ostean, **zenbaketa aktan** jasota geratuko dira emaitzak, eta mahaiko kide guztiek sinatuko dute. Aktan jaso beharrekoak honako hauek dira: hautesle eta boto emaile kopurua, txartel baliogabeen kopurua, hala badagokio, eta txartel baliodunen kopurua; txartel baliodunen artean berariaz adierazi beharko da zenbat izan diren boto zuriak, eta zenbat hautagai bakoitzak lortutako boto kopurua. Halaber, erreklamazioak, erabakiak eta gorabeherak (halakorik balego) ere adierazi beharko dira.

#### **c) Emaitzak argitaratzea**

Behin aktak sinatuta, Fakultateko ohar taulan jarriko dira. Hurrengo egunean, behin-behineko emaitzak ofizialki jakinarazi eta ohar tauletan eta webgunean argitaratuko dira.

Hauteskunde Batzordeak ebatziko duen aurkaratze epea amaitzean, behin betiko izendapena egingo da 2021eko maiatzaren 19an, eta ohar tauletan eta webgunean argitaratuko da.